

NEIKER-NEKAZAL IKERKETA ETA GARAPENERAKO EUSKAL ERAKUNDEA, S.A.

Sozietatearen izena

NEIKER-Instituto Vasco de Investigación y Desarrollo Agrario, S.A.

IFK

A48167902

Izaera

Sozietate publikoa.

Kontabilitate-arabidea

Pribatua.

Aurrekontu-arabidea

Partida murriztaileak dituen balioespena.

Sorrera

Sozietatea 1984ko azaroan eratu zen, Arrantzuarekiko Zientzia eta Teknika Iraskundea, AB (AZTI, A.B.) izena zuela, eta Foru Aldundiaren urriaren 9ko 69/84 FORU DEKRETUAK baimenduta (BAO, 286/1984 zk.a, 1984ko abenduaren 14koa), eta Bizkaiko Foru Aldundiaren mende egon zen, harik eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak bereganatu arte 1988ko ekainaren 3an; eta honetan oinarrituta [132/1988 DEKRETUA, maiatzaren 24koa, AZTI, A.B. Sozietatea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak erosteko baimenari buruzkoa.](#)

Sozietatearen izen-aldaketa 1998ko ekainaren 30ean egindako Akziodunen Batzar Nagusiak erabakita gauzatu zen, zegokion eskritura publikoa 1999ko urtarrilaren 20an egin zen, eta 1999ko otsailaren 16an inskribatu zen Bizkaiko Merkataritza Erregistroan.

Sail-atxikipena

Ekonomiaren Garapena eta Lehiakortasuna

JESN

7211 Ikerketa eta garapen esperimentalak bioteknologian.

Helburu soziala

Sozietatearen helburua akziodunek 1997ko maiatzaren 27an egindako Aparteko Batzar Nagusian erabakita aldatu zen, [124/1997 DEKRETUA, maiatzaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak AZTI, A.B. Sozietatea erosteko baimenari buruzko Dekretua aldatzen duena](#) oinarri hartuta. Honako hau da:

1. Ondoren aipatzen diren arloei buruzko ikerketa- eta azterketa-lanak egitea: nekazaritza-, ur-, ingurugiro- arloko zientziei buruzkoak eta, oro har, baliabide naturalei buruzkoak, nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-mailako teknologiak alde batera utzi gabe noski.
2. Administrazio publikoei eta nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreetako enpresei, ustiatzei eta industriei aholku teknikoak ematea.
3. Nekazaritza-, arrantza- eta elikadura-sektoreetako teknika eta teknologia berriez profesionalak jabetzeko eta haiek aplikatzeko bide emango duten eta profesional mailakoak diren hezkuntza-, gaikuntza- eta espezializazio-prozesuak finkatzea.

